

2005EKO APIRILAREN 21EKO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko apirilaren hogeita batean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakartzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Juan Manuel Serna Portugal.

Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Angel Olaso Villalba bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2005eko otsailaren 23an egindako ohiko bilkura eta 2005eko martxoaren 21an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Angel Olaso Villalba zinegotzia bertaratu da.

III.- 2004KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN ONARPENAREN BERRI EMATEA.-

Ondoren, Alkateak 2005eko otsailaren 25eko ebazpen bidez onartutako 2004 ekitadiko aurrekontu likidazioaren berri ematen du. Likidazio honek 2.548.542,96 eurotako diruzaintzako gerakin likidoa ematen du. Txertaketak egiteko kreditu-gerakinak berriz 906.420,84 eurokoak dira.

Olaso zinegotziak (PP) ea inbertsioen burutze maila hain txikia zergaitik izan den galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio burutu ez den inbertsio bakarra lur erosketarena izan dela eta beste guztiak une honetan burutzen ari direla.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA- REN BERRI EMATEA.-

Jarraian 2005eko apirilaren 14ko dataz Alkatetzaren Ebazpen bidez onartutako 2005eko aurrekontuari egiten zaion Kreditu Txertaketa bidezko 1 Zbk.dun Kreditu Aldaketaren berri ematen da. Kreditu txertaketa honen guztizkoa 906.420,84 eurotakoa da eta banatu zaien likidaziori Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenaren azken orrian azaltzen den zerrendako partidak osatzen du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak esaten du han barneratzen ziren zenbait kontzeptu direla eta, aurrekontuaren aurka bozketu baldin bazuten ere, aldaketa honetan barneratzen diren proiektuak herriaren hobekuntzarako direla eta aldaketa proposamena bidezkoa iruditzen zaiola eta alde bozkatuko duela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aho batez honako hau

ERABAKI DA

Lehenik. - Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	24.000,- €
VI	Inbertsio errealak	1.475.000,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.499.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako gerakina	1.499.000,00 €
GUZTIRA		1.499.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- BIZTANLEEN ERROLDAREN ZUZENKETA 2005-01-01 DATARA.-

Udal Zerbitzu Teknikoek 2005eko urtarrilaren 1 datara Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa prestatu dutelarik, Osoko Bilkurara aurkezten dira zuzenketa honen zenbakizko emaitzak, bere onarpenerako.

Zuzenketa honen arabera, Lazkaok bost mila ehun eta hamalau (5.114) biztanle zituen 2005eko urtarrilaren 1ean. Zenbaki hau ondorengo eragiketen emaitza dugu:

KONTZEPTUAK	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Biztanlegoa 2004-01-01 datara	5.064	2.603	2.461
Altak 03-01-01etik 2004-01-01era	241	115	126
Bajak 03-01-01etik 2004-01-01era	191	91	100
Biztanlegoa 2005-01-01era	5.114	2.627	2.487

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, 2005eko urtarrilaren 1 datara egindako Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa hau onartu egiten du.

Baita ere konstarazten da Instituto Nacional de Estadisticak bidalitako zenbakien arabera 2005eko urtarrilaren 1 datara Lazkaok bost mila ehun eta hamahiru (5.113) biztanle zituela. Beraz biztanle baten aldea dago bi erakundeen arteko zenbaketetan.

VII.- HIRIGOIEN KALEKO BIRRURBANIZAZIO LANAK LEHIAKETAN ATERATZEA.-

INJELAN, S.L.ko Iñaki Laskurain Gisasola bide ingeniarioak Hirigoien Kaleko 14 zbk.tik 30 zbk.ra bitarteko Espaloia Berritzea izeneko Proiektua idatzi du. Proiektu honen aurrekontuaren zenbatekoa, Osasun eta Seguritate azterketa eta Kalitate Kontrola barne LAUEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA LAUEHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (439.462,30) da, B.E.Z. barne.

Bestalde proiektu honen lanak burutzeko kontratazio espedientea prestatu da. Lanak prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzea planteatzen da. Bere espedientean aurkitzen den berariazko administrazio eta ekonomi baldintzen pleguan zehazten den bezala, erizpideak prezioa (%90) eta epea (%10) izango dira. Lanen burutzea 2005 urteko aurrekontutik finantzatuko da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Hirigoien Kaleko berrurbanizazio proiektua, Iñaki Laskurain Gisasola bide ingenerioak idatzitakoa, onartzea.
- 2.- Lanak burutzeko kontratazio espedientea onartzea.

VIII.- ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUAN ALDAKETA.-

Iazko uztailetik EULEN enpresaren bidez ematen da Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua eta kontratua 2006ko abendua artekoa da. EULENek aurreko kontratuaren baldintza berak mantenduz hartu zuen kontratua eta Udalak orduko hamaika euro eta berrogeita hamahiru zentimo, B.E.Z. barne, ordaintzen du.

Diputazioak, berari dagozkion kasuetarako, ordua, gehinez ere, hamalau euro eta berrogeita zazpi zentimo ordaintzen du.

EULENekin izandako elkarrizketetan, hau prest azaldu da Udalak ordaintzen dion prezioa igoko balio igoera hau langileen ordainsariak igotzera aplikatzeko. Udala ordua 11,53 € ordaintzetik 14,47 € ordaintzera pasako balitz, EULENek, zerbitzua ematen duen langileei, soldatak % 26 inguru igoko lieke, ordua orain 5,83 € ordaintzen badie igoerarekin 7,62 € ordaintzera pasatuz.

Bestalde, esan behar da, bere egunean egindako lehiaketan aurkeztutako gainontzeko eskeintza guztiak 14,47 €ko prezio horren gainekoak zirela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du soldaten igoera hori hala den ikusteko gai honen jarraipena egin beharko dela, eta hau horrela izatekotan berak ez daukala inolako eragozpenik kontratu aldaketa hau onartzeko.

Alkateak esaten du berak garbi geratzea nahiko lukeela kontratu aldaketa eta prezio igoera hau Udalaren ekimenez egiten dela ez bestelako inolako jardueren eragin eta ondorioz.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko Udalak EULENekin izenpetuta daukan kontratuaren aldaketa hau onartzea erabakitzen du.

IX.- GOIEKI-KO 2004KO KONTUEN ONARPENA.-

Jarraian GOIEKI, S.A.ren 2004ko kontuak aurkezten dira Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Alkateak esaten du kontu hauek GOIEKI, S.A.ko Administrazio Kontseiluan onartuta daudela eta Udaletako onarpenekin hurrengo Batzar Orokorrera eramango direla honek bere onarpena eman dezaion eta batzar horretan bera izango litzakela Lazkaoko Udalaren izenean, Osoko Bilkura honek erabakitakoarekin bat, botua emango lukeena.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du kontuak aztertzeko nahiko denborarik ez duela izan.

Alkateak erantzuten dio GOIEKIn aho batez onartu zirela, hau da, PPK han duen ordezkariak ere bere oniritzia eman ziela.

Osoko Bilkurak, aztertu ondoren, aho batez, kontu hauek onartzea erabakitzen du.

X.- DATU PERTSONALEN BABESERAKO LEGEAK DIOENERA EGOKITZAPENA.-

Udal honek Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioenera egokitzeko azterketa egin du IZFE, S.A.ren lankidetzarekin.

Azterketa horren ondorioz Segurtasun Agiria izeneko dokumentua osatu da. Dokumentu hau bere espedientean dago eta dokumentu honetan aplikazio eremua, prozedurak, pertsonalaren funtzioak eta betebeharrak, fitxategien egitura eta haiek tratatzen dituzten informazio-sistemen deskribapena, gertakarien aurrean erantzuteko prozedura, laguntza eta berreskurate kopiak eta ikuskaritzak finkatzen dira.

Orain onarpenera aurkeztzen diren fitxategiak 1995eko martxoaren 20an Alkatetzaren ebazpen bidez onartutakoak ordezkatzeko dituzte.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaideen aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- 1995eko martxoaren 20an Alkatetzaren Ebazpen bidez onartutakoak deuseztu eta Izaera Pertsonaleko datuak dituzten fitxategiak sortzea eta beren babeserako Segurtasun Agiria onartzea.

2.- Ondorengo fitxategiak sortzea:

- ?? Kiroldagiko erabiltzaileak
- ?? Espedienteen kudeaketa
- ?? Hilerriaren kudeaketa
- ?? Izazteko bikoteak
- ?? Biztanleen udal errolda
- ?? Tasa eta zergen kudeaketa
- ?? Nomina
- ?? GEIZen mugimendua
- ?? GEIZen hirugarrenak
- ?? Ekonomi jarduerak
- ?? Sarrera/Irteera erregistroa
- ?? Landa izaerako ondasun higiezinak

- ?? Hiri izaerako ondasun higiezinak
- ?? Obraren jakinaren gainekoa
- ?? Gainbalioak
- ?? Gizarte zerbitzuak

3.- 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikulua xedatutakoa betez, akordioaren edukina oso-osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

XI.- LANGILEEN ORDAINSARIETAN KONTURAKO IGOERA.-

EUDELeko Batzorde Eragileak, 2005eko otsailaren 24an egindako bileran, Euskadiko Toki Administrazioaren zerbitzura dauden langileen lan baldintzei buruz honako erabakia hartu zuen: "langileen ordezkari sindikalekin egin beharko diren negoziazioen zain, eta ondorioak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izanik, Euskadiko Toki Administrazioaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek igoera orokorra izango dute kontzeptu guztietan, hain zuzen ere, 2004ko ekitaldiko ordainsariak % 2,5 igoz".

Hau kontutan izanda, Udal honetan, 2005ko martxoaren 8ko Alkatetzaren Ebazpen bidez hasi zen EUDELen gomendio hau ontzat eman eta konturako igoera aplikatzen.

Orain gaia Osoko Bilkurara ekartzen da honek Alkatetzaren Ebazpen hori berretsi dezan.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, berataratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2005 urterako langileen ordainsariak 2004akiko %2,5 hitzarmenaren kontura igotzea ebazten zuen alkatetzaren ebazpena berrestea erabakitzen du.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.